BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1910

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendariarena, administrazio-espedientea bidaltzeari eta prozeduran interesatuta dauden pertsonei deitzeari buruzkoa.

5/2012-C zenbakiko prozedura laburtuari buruzko administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegiak; izan ere, María José Molinos Carbajo andreak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2011ko uztailaren 22ko Ebazpenaren –2011-2012ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrenda argitara ematen duen Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2011ko ekainaren 10eko Ebazpenaren kontra jarritako gorako errekurtsoa atzera botatzen duenaren– kontra eta administrazioarekiko auzi-errekurtso horretatik dator 5/2012-C zenbakiko prozedura laburtua.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 legeak, uztailaren 13koak, 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskatu den administrazio-espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegira bidaltzea.

Bigarrena.– Prozeduran agertu ahal izateko interesatuta dauden pertsonei dei egitea, haien interesak defenditzeko egokitzat jotzen badute. Bederatzi eguneko epe bat izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Sententziak eskatutakoari baietza ematen badio, aldaketak Arabako Lurralde Historikoan beherago adierazten diren espezialitateetako zerrendetako hautagaiei eragin ahal die, baita duten kokapenari ere:

0950. Haur Hezkuntza 1009. tokitik 1223.era

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara emateko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 21a.

Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,
ANA ISABEL CARO MUÑOZ.